HERRIA : 25.11.2021

**Pilotan, paleta goma hutsarekin: neskak txapeldun**

Iparraldeko Pilota Batzordeko txapelketaren finaletan, Abarratia pilota batasuneko 2 parek parte hartu zuten, joan den igande goizean, Garindaineko trinketean, Xitoak eta Kimuak mailan.

Xitoak: Etchegoyen Idoia eta Bidart Maitena txapeldun ditugu, Denek Bateko pareari 3 mantxetan nagusiturik (Etchepareborde-Belzuz Elaia eta Harismendy Elena). Kimuetan aldiz, Labarere Cloé



*Etchegoyen Idoia-Etchegoyen Pantxika (Idoiaren ahaizpa handia) - Labarère Cloé-Bidart Maitena. Trebatzailea: Christine Etcheverry*

eta Etchegoyen Pantxikak osatu pareak finala galdu du, Denek Bateko Amaia Paris-Nahia Acheritogaray parearen kontra. Azpimarratu behar da 4 pilotariak izturiztarrak direla eta pilotari handiak bezala arizan direla. Biba zuek!